

Nazioarteko Habitaten Eguna 2013

“GURE KOSTA ZAIN DEZAGUN, KOSTAKO ITSAS EREMUA BABES DEZAGUN”


Haritzaldek Teniseko marearen eragineko eremua babestea eta Ministerioko Kosta Zuzendaritzari harrieta proiektua baztertzea eskatzen du.

Haritzalde Naturzaleen Elkartek, ekosisteman sor litzakeen kalteak direla medio, Tenis eta Ugartearen artean iragarri den harrietaren aurka agertu nahi du. Gure kostaldea kontserbatu behar dugula zinez uste dugu eta, horregatik, berriro ere marearteko zein sakonera gutxiko itsas eremu horren babes legala eskatzen dugu.

Berriki Ministerioak Tenis eta Santa Klara ugartearen arteko korridorean berehala harrieta eraikiko duela komunikabideetan azaldu da. Helburua Ondarretako hondartzak duen ondar galera geldiaraztea omen da. Gaia berria ez bada ere, oraingoan serio doala dirudi eta horrek larritu egiten gaitu. Hasteko, **eraginkorra izango ote den ez dugu ikusten**. Jarraitzeko, kostaldea eta marearen eragineko eremuaren **kontserbazioa bultzatu ezean, Administrazioek hura artifizializatzearen alde egiten dutela kritikatu** nahi dugu. Bukatzeko, **salatu nahi dugu Teniserako proposaturiko harri-isurketak ingurune horren baldintzen eraldaketa suposatuko duela**, ekosistemarentzat ondorio kaltegarriak ekarri ditzakeelarik.

Egun, ingurune naturalaren ikuspegitik hain giza-eragin handia duen eta hain artifizializaturik dagoen Ondarretako hondartzak ez du balio handirik. Teniseko marearte eta sakonera gutxiko itsas eremuan aldiz, presioa handia jasaten duen arren, oraindik horrelako eremuetan topa daitezken espezie ugari bertan bizileku hartzen dute. Hortaz, bide batez **hondartzan eginiko ondar-mugimenduak salatu nahi ditugu. Orain arte, itsasertzeko harri eta eraikuntza zaharren kondarrak estaltzeko batere eraginkorrak ez izateaz gain, Teniseko marearte eremuaren aurkako eraso bilakatu dira**, bertako harri naturalak ondar-geruza batez estaliz eta hango bizidunak kaltetuz.

Haritzalden geratzen zaigun ondare naturala ezinbestean kontserbatu beharko genukeela uste dugu, are gehiago hain gertu edukita. Hirian, hiriburu batean, horrelako zonaldeak oraindik mantentzea balioan jarri beharko genuke, suposatzen duen aukera bikaina aitortuz eta hura baliatuz. Horrelako tokiak zenbat hirik dituzte? Eta gu bitartean beste alde batera begira. Haritzaldek, beste hainbat elkarterekin batera urteak daramatza horren inguruko sensibilizazioa sustatzen.



HARITZALDE
Naturzaleen Elkartea

Urteak kostaldeko itsas-eremuaren babes-a aldarrikatzen.

2004an Haritzaldek Donostiako Biodibertsitatearen aurretiko Analisisian parte hartu zuen itsasaldea aztertuz. Bertan gure kostaldea eta bertako urak babesteko beharra azaldu genuen, 2005ean hura formalki eskatuz, eta gainera Tenis eta Ugartearen arteko eremuaren babes-beharra azpimarratuz. 2007an bat egin genuen Jaizkibel inguruko itsas eremua babesteko beste elkarte batzuek bultzaturiko ekimenarekin. Orduan Donostiako kostaldea barneratuko zuen babes-eremua aldarrikatu genuen, eta duela ez hainbeste **“Ondarroa 12 mila”** manifestua sinatu genuen, Euskal kostaldeko isasoa babestea eskatzen duena alegia. Gaur, Euskal Herriko bertako itsas eremua babesteko eskaera berretsi egiten dugu eta askorena den aldarrikapena gogora ekarri nahi dugu **“Nazioarteko Habitaten Egunean”** (Urriaren lehenengo astelehenean), marearte eta sakonera gutxiko eremuetan indarra jarritz, Donostiako Tenisekoa kasu.

Nazioarteko Habitaten Egunaren inguruan Haritzaldek antolaturiko ekintzak eta ekimenak 2013an:

1.- Ingurumen sentsibilizazio eta heziketa:

- a) Maiatzaren 26an: irteera gidatua Santa Klara Ugartera, Teniseko marearte bisitatuz.
- b) Irailaren 22an: Zumaiako mareartera eta Algorriko interpretazio zentzora bisitaldi gidatua. Arratsaldean irteera gidatua itsasontzian kostaldea ezagutzeko eta ondoren Zumaiako dunak.
- c) Urriaren 5ean: irteera gidatua Santa Klara Ugartera, Teniseko marearte bisitatuz.

2.- Erakundeekiko:

- a) Kostako itsas eremua babesteko eskaera berritu.
- b) Ondarretako Tenis aldean Kostasek egin nahi duen harrieta proiektua baztertzeko eskatu.



Haritzalde Naturzaleen Elkartea
P^a Anoeta 28, 1.
20014-Donostia
Gipuzkoa
900 110 111 / 609 420 438
naturzale@haritzalde.org
www.haritzalde.org